


NUEVOS EXTRACTOS

DE LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA



XABIER LIZASO LOIDI
Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen Zenbakizko Adiskide
Sarrera Ikasgaiko hitzaldiak



ORIOKOUNDALA

Suplemento 23-G del Boletín de la RSBAP

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
2018











HASIERA – APERTURA

Juan Bautista Mendizabal Juaristi
EAEko lehendakaria Gipuzkoan
Presidente de la Bascongada en Gipuzkoa

Eguerdi on eta ongi etorri guztioi areto honetara. Eskerrik asko Jose Angel Zaldúa, gurekin hemen zarelako eta ekitaldi hau prestatzen eskainitako laguntzagatik. Ongi etorri Xabierren etxeko guztioi eta bere lagun zaretenoi, eta hemen zareten Adiskide eta Oriotar txapeldun herriari.

Gaurko eguna, benetan egun pozgarria da Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte honentzako. Xabier Lizaso Loidi, Adiskide Numerario egiten dugulako. Gainera Orion. Aspaldian ez dugu izan honelako aukerarik herri honetan, naiz eta gure Adiskide batzuk izatez bertakoak izan, baina herri baten bizi.

Euskal Herriaren Adiskideen elkarte, ez da elkarte bat soilik. Bere historia eta ibilaldi luzea, gure Euskal Herriaren nortasuna jorratzen egin dugun lanen bidelagun izan da, hasiera hasieratik. Beti elkartasunean, herriaren hausnarketan murgilduta eta berekin konpromisoak hartuaz. 1764. urtean Bascongada sortu zen. Urte batzuk lehenagotik Xabier Munibe, beste gazte talde batekin, herri honen maitale tinkoak, batzuetan ametslari eta beste batzuetan arduradun finak, lanean ari ziren gure herriaren ongizatearen bila. Gero Euskal Pizkundearen giroan berrindartu zen, eta nabarmenak dira gure azken urteak. Bertatik izen handiak pasa dira, legegizon, historiagile, sendagile, irakasle, idazla-

ri, artista edo musikariak, denak herri honi eskua eta jakinduria emanaz.

Zientzia eta Arteak Euskal Herrira ekartzea izan zen Baskongadaren sorreraren helburu nagusia. Orain dela gutxi, bete ziren 250 urte Zalduntxoan Elkartea sortu zenetik eta gaur egun, espirititu berdinarekin lanean jarraitzen dugu Adiskideok.

Gaur, areto honetan, berriro musikak batzen gaitu. Musika-ren zaletasuna izan zen gure elkartearen hasierako adierazgarrietako bat. Peñafloidak sortutako eskolan, ikasle guztiek zientziak, musika, dantza eta kirola landu behar zituzten. Peñafloidak ikuspegi sakona izan zuen hezkuntza mailan. Gaur egun, Peñafloidaren antzeko helburuak lantzen jarraitzeko, zuk Xabier adibidez, proiektu eder bat ipini duzu martxan, Do Re Ni proiektua. Bertan neurozientzia eta Musika lantzeraz gonbidatzen duzu.

Gaur pozik etorri gera zure sarrerako irakurketa entzutera, gai berri honekin lotu duzuna: NEUROZIENTZIA ETA MUSIKA.

Gure adiskide gazte eta jadanik, maisu handi den, Garikoitz Mendizabalek, eskainiko dizkizu gure Elkartearen Harrera Hitzak.

Bukatzeko, Xabier, zure lanak, ikerketak eta ametsak eskertu nahi ditugu eta gurekin lan egitera gonbidatu nahi zaitugu. Baina, hau hasiera bat da, eta hartu ezazu gure indar handiena lanean jarraitzeko. Hitz hauek esanda, berriro ongi etorri hemen zareten lagun guztioi, eskerrik asko Alkate, eta hasiera ematen diot ekitaldi akademiko honi.

Aurrera XABIER LIZASO LOIDI jauna.

HARRERA HITZAK

Garikoitz Mendizabal Etxeberria

Euskalherriaren Adiskideen Elkarteko adiskide Numerarioa

Gaurkoan, Xabier Lizasori harrera hitzak egitea egokitu zait. Aitortu behar dizuet izugarrizko poza eta alaitasuna sentitu nuela eskakizun hau egin zidanean. Ez da harritzekoa! Elkarri estimu handia diogu eta admirazioa ere bai.

Gaurkoan bi ideia nagusi azpimarratu nahiko nituzke; alde batetik Xabier Lizasok XVIII. mendeko zalduntxo haien ezagugarriak bete betean islatzen dituela. Pertsona oinarri hartuta, heziketa, pedagogia, zientzia, kultura eta noski musikari bere biziko garrantzia emanez..

Eta gaurko egoerara ekarrita nik gehitu diot, gainera, kultura eta musikak duen ezaugarri nagusi bat; bizitzaren elkarkidetzan, desberdinak elkartzeko eta oro har bizitza xamurragoa egiteko duen dohaina.

Xabierrek bere ikasgaiari garbi erakutsi digu zein garrantzitsua den musikarekin harremana izatea gauza askotarako. Eta baita garunaren garapenerako dituen abantailak ere.

Bihotzez, zorionak egiten ari zaren lanagatik eta ongi etorri Euskalherriaren Adiskideen Elkarte honetara.

“GARUNAREN ESTIMULAZIOA” NEUROZIENTZIA ETA MUSIKA

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte
Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País
Zebakizko Adiskide izendatze ekitaldia

Elkarrizketatua:
XABIER LIZASO LOIDI

ORIOKO KULTUR ETXEA
2017ko urriaren 28an

“GARUNAREN ESTIMULAZIOA”
NEUROZIENTZIA ETA MUSIKA.

Berez, hizketa-kontzertuaren formatua
izan zuen sarrera-hitzaldiak.
Hemen, balizko elkarrizketa baten moduan doa,
Baskongada eta hizlaria solaskide.

— *BASKONGADA: Xabier, badakigu neurozientzia eta musika uz-
tartzen dituen proiektu bat duzula. Zertan ari zara? Azalpen
bat eman dezakezu? Badakigu garrantzi handia ematen diozu-
la. Zergatik?*

XABIER: Bai, eskerrik asko. Neroni nago harrituta ikusiz zer
datu aurkitu ditudan nire ibilbidean.

— *B: Harrituta? Zergatik harrituta?*

X: Nire ibilbidearen laburpen bat egingo dizut. Umetatik
jotzen dut pianoa. Hasiera batean, belarriz ikasi nuen jotzen.
Baina 12 urte nituela kontserbatorioko ikasketak egiten hasi
nintzen Donostiako Kontserbatorioan. Bide batez, oso gutxik
daki Baskongadak sortu zuela Donostiako Kontserbatorioa.

— *B. ...*

X. Bai, hala da. Baina jarraituko dut nire historiarekin. 15
urte nituenean, nire helburua piano-jolea izatea zen eta esfortzu
guztiak hortik bideratu nituen.

— *B: Beraz, zientziaren mundua ez zenuen ezagutzen?*

X: Eskolan ikasitakoa besterik ez.

— B: *Nolatan hasi zinen, ba, neurozientziarekin?*

X: Piano-ikasketak bukatu nituenean, lanean hasi beharra neukan. Ikasketak Donostian, Sevillan, Varsovian (Polonia) eta Londonen (Ingalaterra) egin nituen. Polonian izandako esperientzia oso aberasgarria izan zen niretzat. Bertan, musikak presentzia inportantea du gizartean, eta ez dute ulertzen musika Euskal Herrian bezala.

— B: *Nola ulertzen da, ba, musika Euskal Herrian?*

X: U.B.I.ko C.O.U.) ikasketak egiten ari nintzenean, jendeak galdera berdina egiten zidan: Eta orain zer? Zer ikasketak egin behar dituk: ingeniaritza, filosofia, medikuntza....? Nik, berriz, piano-jolearen karrera egingo nuela erantzuten nuen. Gipuzkoan, galdera egiten zidaten denek erreakzio berdina izaten zuten: aurrena, barre egin eta, ondoren, “zer gehiago?” erantsi. Pena eta etsipena eragiten zizkidaten pertsona haien barreek. Kezkagarria zen haien nirekiko jarrerara. Egia esan, ez dakit nola aurrera egin nuen. Bazirudien “tontoa” nintzela.

Varsoviara 1986an iritsi nintzen. Han ere jendeak galdera berdina egiten zidan: zer ari haiz estudiatzen? Nire erantzuna hemengo bera izan arren, oso desberdina zen poloniarren erreakzioa.

— B: *Bai?*

X: Eskuak burura eramanez eta miresmenez begiratzen zidaten. Flipatu egiten zuten, piano-jole baten aurrean zeudela jakitean. Bazekiten oso zaila zela mundu hori. Bazeukaten kriterioa horretaz jabetzeko. Zerbait harrigarria egingo banu bezala begiratzen zidaten. Eta “Messi” izango banintz bezala sentitzen nintzen. European bertan bi errealitate desberdinak eta kontra-koak: Gipuzkoa eta Varsovia.

— *B: Harrigarria da...*

X: Bai, horixe. Baina Polonian pianista izatea zerbait inportantea da. Adibidez, piano-joleek ez zuten soldaduskarik egiten. Hala, behintzat, gogotik ekin nion lanari eta konplexu gutxiagorekin. Kontzertuetara joan eta familia osoak ikusten nituen haietan; gazteak eta umeak ere bai. Gipuzkoan, berriz, jende heldua ikusten zen batez ere kontzertuetan. Han, kontzertuak egiten ziren eskoletan ikasleentzat. Eta hori guztia, oso baliabide ekonomiko gutxiarekin.

— *B: Baliabide ekonomiko gutxi?*

X: Bai. Komunismoaren garaia zen. Arlo batzuetan gaizki ibiltzen ziren; ekonomikoki oso maila baxua zuten orokorrean. Baina inork ez zuen goserik pasatzen eta oso maila kultural altua zuten. Denek hiru hizkuntzatatik gora hitz egiten zuten eta futbolaz ez zuten hitz egiten, jeje....

— *B: Futbola, “herriaren opioa”*

X: Ez naiz gehiago luzatuko gai horrekin. Esperientzia haiek begiak ireki zizkidaten. Pianoa jotzen benetan Varsovian ikasi nuen, baina hori izan zen gutxienekoa. Han jaio zen nire bizitzaren funtsa edo arrazoia.

— *B: Zein?*

X: Nola esango nuke.... Musika, niretzat, helburu zen ordu arte. Handik aurrera, tresna bihurtu zen helburu sakonago bat lortzeko.

— *B: Zein zen helburua?*

X: Pertsona.

— *B: Gai sakonetan sartzen ari gara*

X: Bai. Baina bizitza ez da futbola bakarrik. Ez gaizki ulertu, e? Ni futbol-zalea naiz, eta 53 urterekin ere futbolearen aritzen

naiz ia astero. Baina bizitzan, mundu emozionala, espirituala, artistikoa... ere landu behar da derrigorrez. Egiten ez bada, zulo bat sortzen da estomagoan, urdailean.

— *B: Eta nola bihurtzen duzu hori guztia errealitate?*

X: Horretan 26 urte daramatzat. Ibilbideak, saiakerak erakutsi nau. Metodo propio bat sortu dut ia konturatu gabe. Madrilen deitu zioten “El método Xabier Lizaso”. Orain elkarte bat daukat lan hauek aurrera eramateko: “do re ni” Elkartea.

— *B: Zein da elkartearen helburua?*

X: Garunaren estimulazioa. Neurozientzia, arte ederrak, kirola eta musika... dena jolas eta testuinguru bihurtuta.

— *B: Zientzia-fikzioa dirudi*

X: Hala dirudi, baina oso erreal da. Denboran aurreratua dagoen proiektu bat da. Baina Manolo Urbieta bezalako adituek egin zituzten horrelako lanak, neurozientziaren datuak izan gabe.

Datu hauek ezustekoa sortzen digute. Hainbeste mendetan, musika hartu izan dugu ekintza estetiko soil bat gisa. Baina XXI. mendean baditugu datuak musika beste toki batean jartzeko. Datuak hor daude.

— *B: Noiztik daude datu hauek, Xabier?*

X: Duela 20 bat urte, “Paul Bach- Y- Rita” neurozientifikoak zalantzan jarri zituen neurozientziaren zutabeak. Ordu arte ueste genuen 20 urtera arte garatzen genuen garuna ezin zela aldatu. Zientifiko hau intuizioz esperimentatzen hasi zen eta deskubritu zuen garunak bere burua senda dezakeela bere azken egunera arte. Ezaugarri honi “plastikotasuna” deitu zion.

— *B: Plastikotasuna. Hitz hori entzuten da tarteka*

X: Honetaz Norman Doidge neurozientifikoak hauxe dio: garunaren plastikotasuna da azkeneko 400 urtetan neurozientziak egin duen aurkikuntzarik inportanteena.

— *B: Nola jakin dute hori?*

X: Teknologiari esker. Konkretuki, PET eskanerra eta Erresonantzi Magnetiko Eskanerra (fMRI)-ri esker.

Bi eskaner hauek garuna ulertzeko era aldatu dute. Horien bidez, gai gara monitore batean momentuan bertan ikusteko garuna egiten ari den lana. Horiek sortu aurretik, intuizioz eta autopsien bidez egiten ziren azterketak. Orain, fMRI eskanerarekin ikaragarri ikasten dute neurozientifikoek, eta aurkikuntzak erabat harritu du gizartea.

Eskanerretan, ofizio desberdinetako pertsonak hasi ziren aztertzen. Ikusi eta ikasi nahi zuten garunak zer-nolako lana egiten zuen jarduera bakoitzean. Igeltsero bat lanean edo irakasle bat matematika edo hizkuntza irakasten ari zirela, monitoretan argi azaltzen zen garuneko zenbat zati desberdin ari zen lanean eta zer-nolako neurritan. Ezustekoa izugarria izan zen. Espero ez ziren emaitzak lortu dira. Musika entzuten jarri zutenean pertsona bat, sekulako su artifizialak ikusten ziren monitoreetan; eta norbait instrumentu musikal bat jotzen ari zenean, sekulako festa sortzen zen garunetan. Hau da: musikak adina ia ezerk ez dio garunari eragiten.

— *B: Baina, Xabier, zergatik hainbesteko lana ematen dio musikak garunari? Hau da, zergatik musikak neurri handi honetan estimulatzen du garuna?*

X: Zergatik? “Maria” bat izan da musika gure gizartean. Herrialde batzuek garrantzia eman badiote, beste askok ia ezer ez, garrantzi estetikoa ez bada.

Musika entzuterakoan zer gertatzen da? Zer-nolako lana egin behar dugu? Alde batetik, melodia entzun behar dugu.

Ahots sopranoak eramaten du normalean. Baina bajoa ere entzuten dugu, eta beste ahots batzuk ere bai. Ia beti hiru edo lau ahots desberdin atzematen ditugu musika entzuterakoan. Garunak bereizi egin behar ditu ahots desberdin horiek oso denbora gutxian, guk entzuten dugunak zentzu bat izan dezan. Baina, ahotsak ez ezik, erritmoa ere bereizi behar du. Ahots guztiek ez daramate erritmo berdina. Horrek denak lana eginarazten dio garunari. Armonia ere tartean dago. Hau ere atzematen du garunak. Ekintza desberdin asko jarduten dira lanean jo eta ke momentuan bertan. Elkarrekin. Tokia aurkituz. Zentzua emanenez. Guk modu erraz batean ulertzeko. Gozatzeko.

Baina, entzuteaz gain, instrumentu bat jo behar badugu, datu askoz ere harrigarriagoak eskuratzen dira. Entzuteak eta jotzeak –batera lantzen diren ekintzek– biderkatu egiten dute estimulazioa. Sekulako lan gogorra da garunarentzat. Piano-jole batek, adibidez, hamar behatz koordinatu behar ditu. Behatz bakoitzak lan desberdina egin behar du. Organo-jole batek hamar behar eta bi hankak koordinatu behar ditu batera.

Bada besterik, ordea. Ekintza horiek guztiak egiteaz gain, partitura bat irakurri behar badugu, askoz handiagoa da lana. Piano-jole batek bi pentagrama irakurri behar ditu batera. Pentagrama bakoitza hizkuntza desberdin batean dago (normalean, sol eta fa klabeak dira, baina ez beti). Organo-jole batek hiru pentagrama ditu irakurtzeko batera.

Irakurtzea bakarrik konplikatua bada, erritmoa ere badaukagu eta konpasa ere bai. Horrek guztiak sekulako kontzentrazioa eskatzen du. Musika jotzean, ezin gara gelditu. Ezin dugu konpasa eten. Ezin dugu nahi dugun erritmoan jo irakurtzen ari garena. Beraz, garuna ikaragarri estimulatzen da musika jotzean. Musikari profesionalen garuna –lan honi esker– %25 handiagoa da.

— *B: Benetan?*

X: Datuak hor daude. Gottfried Schlaug neurozientifikoa ikerketa asko egiten ari da Alemanian horretaz, eta hau dio: Ikerketa zientifiko askok erakusten dute musikak adina ia ezerk ez diola garunari eragiten.

Baina estimulazio honek ez du balio bakarrik musika ikas-
teko. Edozertarako laguntzen du. Erraztasun handiagoa ematen
du ekintza berri baten aurrean.

— *B: Beraz, zer konklusio ateratzen duzu, Xabier?*

X: Azkenengo mendeetan gizakiok zutabeak eraiki ditugu musika zoragarria izateko. Asko kosta da. Soilik lan estetikoa bezala ulertzen genuen. Gaur egun baditugu datu harrigarriak musikari lotuta. Datu hauek musika zerbait askoz inportantea-
goa dela erakusten dute. Erabili egin behar dira.

Globalizazioak behartzen gaitu berritzaileak izatera. Eten-
gabe horretan aritu behar dugu munduan paper inportante bat
izateko. Gizarteak ezinbestez aldatu behar du musika ulertzeko
kontzientzia.

Euskal Herrian, gizarte aurreratu bat sortu behar dugu. Ikertzaileek beren tokia izan behar dute. Musikak bere tokia izan behar du. Ez, gaur egun duena. Oso bestelakoa baizik. Ideia berriak sortzen dituzten pertsonak tokia izan behar dute gure gizartean. Pertsona hauek irekiko dute bide berri bat. Baina gaur egun, gure artean, ez dute ez tokirik eta ez gogorik. Baditugu pertsona aurreratuak, eta lagundu egin behar diegu.

